

# TITUS IGELA

Titus igela saltoka\* ari da,  
Titus igela, gure laguna.

Urtegi-an ibiltzen da  
ta gero ateratzen da  
euria bada.

Titus igela saltoka ari da,  
Titus igela, gure laguna.

\* saltoka : jauzika

Ti-tus i-ge-la saltoka a-ri da Ti-tus i-ge-la gu-re la-gu-na .

Ur-te-gi-an i-bil-tzen da ta ge-ro a-te-ra-tzen da eu-ri-a ba-da

## HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Zehaztasun erritmikoa landu. Mugimenduak eta kantua gogoz ikasi.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.</li> <li>◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu.</li> <li>◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu.</li> <li>◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.</li> <li>◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne.</li> <li>◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.</li> </ul>
MUNDUAN IHARDUN. Melodia eta mugimenduak sinkronizatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.</li> <li>◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.</li> </ul>
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi.</li> <li>◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...).</li> <li>◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.</li> </ul>
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.</li> </ul>	


# USTIAPENA (egin moldea)

## 1. Psikomotrizitatea landu :

*Haurrak xutik daude.*

### LEHEN KOPLA

- Eskuak jo (bi aldiz).
- Izterrak jo.
- Eskuak jo.
- Eskuak airean altxatu.




Igelaren jauzia mimatu :

kokorikatu/kukubilkatu,

eskuak lurrean eman eta jauzi egin.

⇒ *saltoka ari da*



Besoak bular gainean gurutzatu eta gorputza  
eskuin-ezker biratu  
(maitasuna eta goxamenaren jestua).

⇒

*gure  
laguna*



### BIGARREN KOPLA

Igeriketa mimatu

⇒ *Urtegian ibiltzen da*

Uretatik ateratzea mimatu


⇒ *ta gero ateratzen da*

Eskuak zeru aldera altxatu

⇒ *euria bada.*

## 2. Taupada landu :

- Igelaren ibilmoldea antzeztu jauzi eginez putzuz-putzu (igeltsuarekin lurrean errondak eginik).
- Edo putzuz-putzu bi zangoak juntaturik jauzika eginez (xutik).



☺ Marrazkia margo ezazu.

### Osatzeko :

- entzun *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature*. 09307 KDa. Sittelle.
- entzun *Igelak* kantua. Otxalde taldearen KDan.
- ikus *Igela artista* kantua. Gure abestiak 3.4. Heziketa musikal naturalerako haur abestiak.
- ikus *Igelak* olerkia. Jon Mirande. Euskal testu bilduma. Ikas.



